

# MUGARIK GABE

## PLAN ESTRATEGIKOA

2021-2026





**mugarik  
gabe**

**Argitaratzailea:**



**www.mugarikgabe.org**

 Mugarik Gabe

 @mugarikgabe

### **ARABA**

"Itziar" Elkarteen Etxea - Zalburu Plaza z/g  
01003 Vitoria-Gasteiz  
945 277 385 – [araba@mugarikgabe.org](mailto:araba@mugarikgabe.org)

### **BIZKAIA**

Vicente Garamendi auzunea 5, behea  
48006 Bilbao  
94 415 43 07 – [bilbao@mugarikgabe.org](mailto:bilbao@mugarikgabe.org)

### **GIPUZKOA**

Katalina Elizegi 46, behea, 4.atea  
20009 Donostia  
943 445 977– [gipuzkoa@mugarikgabe.org](mailto:gipuzkoa@mugarikgabe.org)

2022ko martxo

**Maketazioa:** *Binari Comunicación*



---

#### **Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Internazionala (CC BY-NC-ND 4.0)**

Dokumentu hau Creative Commons lizentziarekin dago. Edukia libreki zabaltzea, kopiatzea eta birbanatzea baimentzen da edozein bitarteko edo formatutan, beti ere, egiletasuna aitortzen bada. Ezin da erabili xede komertzialarekin, nahastu edo eraldatu egiten bada edo materiala oinarri hartuta sortu egiten bada, ezin da eraldatutako materialik hedatu, ezin da lizentziak baimentzen duena legalki burutzea mugatzen duen neurri teknologikorik edo legezko akaberarik erabili.

**Lizentzia osatua:** [http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es\\_](http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es_)

# AURKIBIDEA

1. CONTEXTO .....	5
2. ZEREGINA .....	12
3. IKUSPEGIA.....	13
4. BALIOAK.....	14
5. ILDO ESTRATEGIKOAK .....	15
6. JARRAIPIEN- ETA EBALUAZIO-SISTEMA.....	19



# 1 TESTUINGURUA

Larrialdi egoera batean bizi gara, non ekonomiak, politikak eta kultur hegemonikoak bizitzaren oinarri materialen aurka doazen paradigmak sortuz gerra deklaratu baitiote bizitzari. Zientziaren zati handi baten esanetan ere, ez da posible ekonomia jasangarri bat lortzea mugarik gabeko hazkundearen itzalaren azpian egonda.

Kapitalismoak eta neoliberalismoak batasun kriminal bat sortu baino lehen, Estatuak ekonomia modu autonomoan sustatzeko eta kudeatzeko boterea zuen. Horren adibide dauzkagu: enpleguak zuzenean sortzea, ekoizpen-sektore estrategikoak garatzea edo zerbitzu publiko oinarrikoen finantzatzea.

Ekonomia-subiranotasunari uko egin zitzaion unetik, alabaina, estatuaren esku-hartzearen eta sektore estrategikoen zati handi bat ekimen pribatuen eskuetan geratu da. Neoliberalismoaren hegemonia finkatzeko, herritarrak hazkunde ekonomikoa funtsezkoa eta eztabaidea dela eta gizarte osoaren interesean dagoela konbentzitzea gako izan zen. Hala ere, agerian geratu da gutxi batzuen eskuetan dagoen kapital-metatze makinak funtzionatzen jarraitzeko soilik dela beharrezkoa.

Elite global horiek dira 2016. urtean Davoseko foruan XXI. mendeko Kapitalismoa deritzona sustatu zutenak, haien

pribilegioak mantentzeko xedearekin. Ekonomia berri horren oinarriak digitalizazioa, robotizazioa, eta plataforma digital handiak dira, eta datuak nahiz informazioa pisu gaileneko lehengai berri bihurtu dituzte. Inposatzen ari diren eta biztanleriaren zati handi bat besarkatzen dugun eraldatze ekonomikoaren oinarriak datu horien ("Big Data" deritzona) jabea eta Adimen Artifizialaren bidez datuak kontrolatzen dituen modua dira. Gure gizarte-harremanak, aisialdia, kontsumoa eta, funtsean, gure bizitza, plataformen gomendio utzi ditugu. Plataforma horiek (besteak beste: Amazon, Google, Facebook eta Microsoft) zerga-ihesak egin eta eskubideak urratzeaz aparte, gero eta botere gehiago, kapital gehiago, biltzen dute eta gure bizitzen gainean duten kontrola areagotzen ari dira.

Hortaz, informazioaren era berri honetan, egiturak gero eta gutxiago ikus daitezke, gero eta ezkutatuago daude, eta guttiz komeni zaie hori: hasiera batean estatuak zeukan botere geopolitikoa orain komunikazio-sareen eskuetan biltzen da.

Hori guztiaren ondorioz, gure gizartea ahulduta eta hauskor dago, eta ikusteko handia du sistema ekonomiko kapitalistak sustatzen duen eta krisian dagoen eredu neoliberalak. Sistema horrek, biztanleriaren zati handi baten zapalketan oinarritzen diren beste sistema batzuekin gertatzen den bezala, gudak sortzen ditu, pobrezia-egoeran dauden per-



tsonen kopurua areagotzen du, demokraziak ahultzen ditu eta erakunde publikoen arpilatzea eragiten du.

Mundu mailan, gobernu autoritario eta arrazisten goititza eta fundamentalismoen areagotzea ikus ditzakegu. Hortaz, kultura eta erlijioen arteko liskarrak, fundamentalismo militar, ekonomiko eta erlijiosoen arteko lotura, terrorismoa, xenofobia eta arrazismoa bultzatzen dituen eskuin-muturreko presentzia erakundeetan areagotzea... gertatzen ari dira. Horiek guztiek islatzen dute ziurtasun gabeko gizarte bat, bestearen beldur dena eta elkarrizketan, justizian, tolerantzian eta bakean oinarritutako bizikidetzaren sortzea oraindik urrun duena.

Bizitzen ari garen krisi sistematiko larri horren beste adierazle dira: aldaketa klimatikoa, biodibertsitatearen galera, baliabide naturalen agortzea, desberdintasun sozialen eta genero-desberdintasunen areagotzea, eta gutxi batzuek munduko aberastasuna pilatzea (bazterketa eta pobrezia, bereziki emakumeengan, berarekin dakarrena).

Hortaz, zibilizazioaren eta klimaren krisi bati buruz hitz egiten ari gara, eta bi krisi horiek elkarrekin zalantzan jartzen dute azken hamarkadetako garapen-eredua eta are gizakien bizitza-baldintzak. Koronabirusaren pandemiak errealitate hori larritu baino ez du egin.

Krisi horrek gizadia bere osotasunean bidegurutzean kokatu du: kapitala edo bizitza. Lan-esplotazioaren, ingurumenaren suntsipenaren eta metatze zentralizatuaren aurrean, garapenerako alternatiba postneoliberalak sortzeko beharra agertzen da, bizi-baldintza hobekak sortzeko biztanleriaren gehiengoarentzat eta, ondorioz, arreta jartzeko planetaren giza-bizien erreprodukzioa bermatzeko beharrez.

Horretaz aparte, ikus dezakegu Giza Eskubideak politikaren, ekonomiaren eta komunikabideen agertokietan desgertzen ari direla, eta elite politiko eta globalek ez dutela begirunerik eskubide horien eta ingurumen-politiken urratzearen benetako larritasunaren aurrean. Herri indigenak eragindako nagusiak dira, eta beraien borrokek giza eskubideak (banakakoak eta kolektiboak) eta naturaren eskubideak elkarrekin erlazionatzen dituzte.

Borroka horien ondorioz, herri horiek kriminalizazioari eta eskubideen defendatzaileen zapalkuntzari aurre egiten ari dira, batez ere Latinoamerikan. Haien herrien banakako eskubideak eta eskubide kolektiboak defendatzen dituzten lidergo indigenen egoera juridikoa kritikoa da; izan ere, beraien manifestazio-, adierazpen- eta eskaera-eskubideak mugatu dira, eta auzitara eramaten zaie bakarrik haien eskubideak errespetatzea exijitzeagatik.

Lurralde indigena ezberdinetan gatazkakortasun soziala areagotu da inposaketaren, informazio-faltaren eta erazketa-proiektuei (hala nola, meatzaritza) buruzko argibideak eskatzearen ondorioz, eta elkarrizketa-mekanismo gutxi egoteagatik. Hori dela eta, komunitateen aurka indar publiko neurrigabea erabili da eta herri indigenen eskubide kolektiboan urratzeak areagotu dira. Giza eskubideen defendatzaileekiko erasoak ere areagotu dira, espetxeratze eta mehatxuetatik hilketetara doazenak.

Nazioarteko mobilizazio sozialeko mailan, feminismoa errealitate horietara gehitzen da eta bere rola nagusitzeaz aparte, eraldatze sozialerako higiarazle nabarmentzen da. Azken urteetan bi agertoki ikusten ditugu: bata, non feminismoa eta bere eskubideak gero eta nabarmenagoak baitira gizartean, komunikabideetan eta erakundeetan; eta txanponaren beste aurpegia, hau da, aurretik aipatu dugun era guztietako fundamentalismoen handiagotzea.

Nazioarteko mailan, 2018 eta 2019 urteetako M8 grebek mugimendu feministaren indarraren kaleko ikusgaitasuna ekarri dute beraiekin. Mota guztietako emakumeak\* deitu zituzten greba egitera eta espazio publikoa okupatzera, eskubide zehatzekin ez soilik emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunari buruz, baizik eta sistemaren eta bizitza erdian kokatzen ez duen eredu baten kritika estruktural bat eginda ere.

Aldi berean, olatu fundamentalista antifeminista bat ikus dezakegu, duela urte asko Latinoamerikako hainbat herrialdeetatik zabaltzen ari dena indarrez eta Europan ere hedatzen ari dena sektore erlijiosoak, politikoak eta gizartearen zati batek bultzatuta. Eskuin-mutur horrek gorroto-diskurtsoak, ekintza bortitzak eta diskriminaziozkoak sortu, mobilizatu eta legitimatzen ditu, emakumeen gorpuzak, sexualitateak, subjektibotasunak eta bizitzak kontrolatzeko asmoarekin eta feministak etsaitzat identifikatuta. Hori dela eta, mundu mailan, emakumeen eskubideak murriztea eskuin-muturreko (lobby kontserbadoreak, erlijiosoak eta fundamentalistak barne) agendaren puntuetako bat da. Diskurtso horiek gizartean barrena sartzen dira, are indarkeria sexisten arazo globala hautematen duten pertsonetan ere.

Elkarbizitzari eta justizia sozialari dagokionez, garrantzitsua da azpimarratzea gorroto-narratibak ez direla barruratzeko soilik erakundeetatik, baizik eta erakunde eta komunikabide mota ezberdinek (konbentzionalak edo sare sozialen bidez) gizartean eragin handia duten diskurtso horiek igortzen dituztela, noizbait legitimazio soziala lortuta eta ahaztuta horrek eskubideen urratzea dakarrela.

Indarkeria matxistei dagokionez, berriro ere aurkitzen ditugu txanponaren bi aurpegiak esparru legegilean. Alde batetik, esparru europarrean, nabarmendu daiteke herrialde batzuek ez dutela berretsi Istanbulko Hitzarmena, genero-indarkeriaren aurkako prebentzioari eta borrokari buruzkoa, edo horrekiko harremana hautsi dutela. Bestalde, estatu mailan, azken 5 urteetan talde parlamentarioek, autonomia erkidegoek eta tokiko erakundeek adostasuna adierazi zuten Genero-indarkeriaren Estatu Itunarekin (2017) eta Sexu-askatasunaren berme integralaren Lege Organikoaren (2020) aurreproiektuarekin. Aldi berean, gobernu autonomiko ezberdinetan sartu den eskuin-muturrak atzerako politikak sustatzen ditu esparru honetan, esanda indarkeria sexistak ez direla existitzen eta indarkeriak generorik ez duela aitortuta.

Gure testuinguru hurbilenean, genero-indarkeria biltzen duen EAeko 4/2005 Legearen (Emakumeen eta gizonen berdintasunarena) aldatzea prestatzen ari da. Zirriborroa aztertuta, nahikoak izan ez arren, aurrerapenak ikus daitezke indarrean dagoen araudiari dagokionez, baina zalan-tzan jartzen da aplikatuko diren edo ez.

Arau- eta komunikabide-testuinguru horretan, gizartea bananduta dago; batzuk argi dute genero-indarkeriaren aurka egiten jarraitu behar dela esparru ezberdinetatik, beste batzuk, ordea, emakumeen eskubideen kontrako agendaren alde jotzen dute gehiago.

Egoera horretan, nabarmentzen dira bizitzaren jasagarritasunaren paradigma elkartasunera eta lankidetzara gehitzearen garrantzia aldarrikatzen duten diskurtsoak. Paradigma horrek mahaira ateratzen du gizakiak ekomen-dekoak garela eta, gainera, beste gizakien mende gaudela. Gizarte patriarkaletan, gehien bat emakumeak izan dira gorputz kalteberen arreta- eta zaintza-lanez arduratu direnak.

Zentzu horretan, Iparraldeko herrialdeen zaintza-krisia deritzonak eragin izugarri handia du kohesio sozialean. Krisi hori migrazio-mugimendu masiboak eragiten ari da, eta hegoaldeko emakumeak bai iparraldera, bai hegoaldeko beste lekuetara migratzen ari dira. Migrazio-mugimenduek, aldi berean, zerikusia dute jatorrizko herrialdeen erreproduktzio sozialaren krisiarekin.

“Zaintza-kate globalak” deritzon jatorrizko agertokietan, prozesu horiek bizitzaren mantentzea zuzenean erasotzea dakarte beraiekin. Alor horretan alderantzizko deslokaltzazio moduko bat gertatu da, zaintza-lanak deslokaltzatu ezin direnez, munduaren beste lekuetara mugitzen ari diren emakumeak hegoaldeko globalaren herrialdeetakoak direlako.

*“Indarkeria matxistei dagokionez, berriro ere aurkitzen ditugu txanponaren bi aurpegiak esparru legegilean.”*

Hortaz, baieztatu dezakegu iparraldeko globalaren zaintza-krisiak hegoaldean eragina izan duela eta pertsona askorentzat laggarriak diren egoerak eragin dituela. Gatazka hori larriagotu egin da finantza-krisiaren, eta orain, COVID-19ren krisiaren, ondorioz.

Beraz, “bizitzaren jasagarritasunari” buruz hitz egiteak berarekin dakar gizarteak bere osotasunean zaintzen beharrez eta zaintza-lanez erantzukizuna hartzea. Labur esanda, kontua lehentasunak aldatzea da, betiere heteropatriarkatuaren aurkako ikuspuntu eta praktika antikapitalista batzuetatik abiatuta; hau da, bizitzaren zaintzari lehentasuna eman kapitalaren metatzearen aurrean.

Horrekin lotuta, kontuan hartu behar da ere hegoaldeko emakumeek iparraldeko globalera iristeko pasatzen dituzten prozesu migratzaileak muturreko baldintza bidegabeetan ematen direla atzeritarrei buruzko legeen ondorioz, lege horiek eskulan merkea eta langileen eskubideen gabezia sustatzen baitituzte.

Gero eta babes gutxiagoko testuinguru honetan eta migrazio horiekin batera, erregistroak daudenetik inoiz ez bezalako mailara iritsi den beste gertakari bat gertatzen ari da: lekualdatze behartuak. Une honetan, lekualdatze globalaren beharren kontra doazen eta talka egiteko arrisku handia duten bi dinamika mamitzen ari dira. Alde batetik, ingurune-arrazoiek direla eta (arrazoi klimatikoak barne) lekualdatzera behartuta ikusi diren pertsonak babesten dituen lege lotesle bat faltan dagoen bitartean, poliki baina pausarik gabe, gero eta gutxiago betetzen da nazioarteko legeria asilo eta babes kontuetan; bestalde, giza-mobilizazioaren sekurizazioa (hau da, mobilizazioaren segurtasunaren bidez tratatu behar den mehatxutzat hartzea) eta herrialde zentralen mugen militarizazioa, interes pribatuek eta diskurtso arrazista eta xenofoboek sustatuta.

Bi prozesuek krisi global larri bat eragiten ari dira giza-mobilizazioaren inguruan, milioika pertsonen eskubideak urratzen eta eztabaida politikoaren giroa hozten duen krisi bat, alegia. Munduan gutxienez 63 herresik oztopatzen dute lekualdatzen diren pertsonen sarrera. Muga-segurtasunaren aurrekontuak indartzea eta ikuspuntu baztertzaila eta xenofoboak sektore politiko eta sozial zabaletan normalizatzea eskuz esku doa.



Hortaz, neurritz neurri, giza-mobilizazioa arautzen duten politikak sortuz eta mobilizazio hori eskubideekin edo horiek gabe egin ahalko den erabakiz doaz, arrakala sozialak areagotuaz bai jatorri herrialdeetan, nola xede herrialdeetan.

*“Beraz, “bizitzaren jasangarritasunari” buruz hitz egiteak berarekin dakar gizarteak bere osotasunean zaintzen beharrez eta zaintza-lanez erantzukizuna hartzea.”*

Egoera horretatik eratortzen den aldaera arriskutsu bat ekofasizismoa da, ahalbidetzen duena gero eta pertsona gutxiago (botere ekonomiko eta/edo militar handiena dutenak) mantendu ahal izatea beraien bizitza-estiloa; baliabideak metatuta lortzen dute, baina jende askoz gehiago bizitza duin bat izateko minimoak eskuratzeko aukera galtzearen truke. Azkenean, korronte hori beti da funtzionala enpresentzat, arazoa indibidualismoan dagoela adierazten duelako eta erantzukizuna kentzen dielako lehenik krisia benetan sortu zutenei.

## LATINOAMERIKA

Koronabirusa iritsi baino lehen, Latinoamerikan klase herritarren protesta eta matxinada ziklo berri bat ematen ari zen neoliberalismoaren eta horrek bizi-baldintzetan eragindako okerragotzearen aurka. Izendatzaile komun bat zegoen txiletar gazteek Pinocheten diktaduraren ondare den demokrazia-sistemaren aurka egindako erreklamazioaren, gizarte kolonbiarrak osasun eta hezkuntza publiko hobea izateko edo Bake Akordioak betetzeko alde egindako erreklamazioaren, Boliviako nekazariak eta herri indigenek estatu-kolpea eta gero demokrazia itzultzeko egindako erreklamazioaren eta Argentinako Macriren gobernuaren aurkako edo abortatzeko aldeko mugimenduen artean; eta udaberri latinoamerikar baten moduko zerbait gertatzen ari zen.

Eskualdean eskuineko eredu baten krisia eman zen, eta Amerikako Estatu Batuetako Trumpen jarraibideak betetzeko asmoa zuten gobernuek (Brasil...) horren parte hartu zuten. Horregatik, 2020. urtearen barruan eta, posiblea bada, are bortizkiago ere 2021. urtean, Covid-19aren eragin latzak gorabehera, eskualdeko indar-korrelazioa sistema

neoliberal menderatzailearen aurka zuzentzen da berriro ere. Protesta zabaltzeaz aparte (Txile, Brasil, Kolonbia...), neurri batean edo bestean klase herritarren interesen alde egiten dituzten gobernuak berreskuratu dira, hala nola: Argentinan, Bolivian eta Perun.

Hala ere, zaila da ziklo progresista berri bat ematen ari den edo, aitzitik, lehenaren bigarren olatu bat den ondorioztatzea.

Alde batetik, eskuinak ere ez du lortu hegemonia politiko bat sendotzea eta determinazio sozial irmoak hauteman daitezke, besteren interferentziei aurre egiteko xedearekin eskualdeko subiranotasunaren bidea jarraitu nahi dutenak eta bidezkoagoak eta duinagoak diren gizarte deskolonizatu, despatriarkalizatu eta postneoliberalak eraiki nahi dituztenak. Leku anitzetan, gutxieneko aberatsen onura lehenesten duten sistema neoliberal baten aurka gertatzen diren matxinadek, hauteskunde-liskarrak sortzeaz aparte, eztabaida politikoak nahiz gogoeta- eta ekintza-eztabaidak ere sustatu dituzte. Eztabaida horiek agertzen ari diren agenda sozial berriak eta proposamen zaharretarako alternatiba berriak sortzen dituzte. Demokraziak eta sistema politikoak behetik, jende apalenen laguntzarekin, berrantolatze borroka eta interesak dibertsifikatzen dituzten alternatibak eta narratibak.

Hala ere, bestalde, testuinguru zehatz batzuetan mobilizatzeko gaitasunaren eta eragin politikoaren murrizketa bat ere hauteman daiteke, eta gobernu herritarrak Estatura eraman zuten borroken jarraitutasuna eteten da. Gainera, hurrengoak sendotzen dira: protesten kriminalizazioa Estatuaren aldetik, zorrotzasun-politikak eta mugimenduetatik, esperientzia alternatiboetatik eta agertzen ari diren aipatutako agendetatik gero eta urrunago dagoen anbiguotasuna.

Hala eta guztiz ere, testuinguru nahasgarri horrekin, gizarte latino-amerikano ugarritan borroka soziokulturalak eta identitate-aldarrikapenak mantentzen dira; hiritartasunak Estatuaren aurrean egindako eskakizunen barruan politika, boterea, gizartea eta subjektua ulertzeko era berriak proposatzeko xedea dutenak, agenda-gai eta eztabaida berriak dituztenak eta gure garaiko modernitate kapitalista nahiz zibilizazioaren krisia gaindituko dituen jardunbide berri bat exijituaz.

Zentzu horretan, “ezagutzaren deskolonizazioa” deritzonak gogoeta kritiko bat eskatzen du, Abya Yalako komunitate eta lurraldeetatik eratorritako ezagutzak ekoiztera zuzenduta egongo dena.



Latinoamerikako mugimendu indigenek eginkizun nagusi bat dute hori guztian, beraien eskabideek zeharkako planeta-irrisgarritasuna baitaukate. Eskabide horiek hurrengoe-kin dute lotura: ingurumenaren zaintza, giza eskubideen benetako betetzea, arraza-diskriminazioaren aurkako borroka, determinazio askerako eskubidearen aldarrikapena eta kulturarteko gizarteak sendotzeko borroka, konstituzionalismoaren eta nazioarteko eskubidearen erretoriketarik harago.

Gaur egun, gizarteak zigortzen ari den pandemiak berriro ere kokatzen ditu leku lehenetsi batean herri indigenen aldarrikapenak eta pentsamenduak, bizitzaren jasagarritasuna bermatzeko gai diren aldaketarako alternatiba aurkezten baitira.

Abya Yalako mugimendu indigena ezberdinek ezarritako ordena sozialari zorrotz eta sistematikoki egin diote aurre, kontinentearen herrialde ezberdinetako elite ekonomikoaren eta politiko-alderdikarien aurkako erresistentzia-ekintzez aparte, mobilizazio- eta matxinatze-ekintza garrantzitsuak zuzenduta. Zentzu horretan, mugimendu indigenaren adierazpen anitzek indar politiko eraldatzaile direla irimotu dute.

Azken urteetan ere, mugimendu feminista indarrez sartu da herrialde latinoamerikarren agenda politiko eta sozialan: abortu askearen eskakizunetik feminizazioen salaketara arte. Fenomeno globala izan arren, eskualdean aldarrikapenen pluraltasun bat barne hartzen duten berariazko berezitasun batzuk daude, genero-berdintasunetik harago doazenak.

Beraz, ekintzaile latinoamerikarrek "feminismoei" buruz hitz egiten dute: Guatemala eta Boliviako emakumezko indigenen komunitatearen feminismitik, Kolonbia eta Brasilgo arrazismoaren aurkako feminismo deskolonialera arte edo aniztasun sexualetik heldutako feminismoa arte. Horiek guztiek teoria klasikoak berraztertzen dituzte diskurtso feministari ahotsak gehitzeko.

Latinoamerikako emakume gazteek, beraien borroka-lekua ikasle-erakundeetan aurkitzen dutenak eta protesta feministen liderrak direnak, ez dute feminismoa ulertzen ahots-pluraltasun hori gabe. Borroka zeharkakoagoa dela eta bizitzaren alderdi guztiak ukitzen dituela ulertzen da. Latinoamerika borroka feminista berraztertzen ari da borroka bere testuinguruen konplexutasunera egokitzeko, eta hori lortzeko, emakume indigenak, komunitatearen borroka aldekoak, emakume beltzak, behartsuak, herritarrak... barne hartzen dituen ahotsen eta begitarte kolektiboaren pluraltasuna erabiltzen ari da.

Laburbilduz, feminismo latinoamerikarrek emakumeek egunero aurre egiten dituzten borroka biltzen dituzte, eta aldi berean, gogoeta kritikorako eta berdinzaleagoak eta bidezkoagoak diren utopia kolektiboak ezagutzeko eta biltzeko espazio gisa balio dute.

## EUSKAL HERRIA

Covid-19ren ondorioz gertatu den egoera eta Covid-19 ez zabaltzeko hartutako neurriak ustekabearen etorri ziren munduko gehiengorako, Euskal Herria barne. Osasun-krisiarekin batera, dagoeneko agerian zeuden beste krisi batzuk (krisi ekologikoa, zaintza-krisia edo krisi ekonomikoa) bizkortu eta ikusgai geratu ziren, eta begien bistan geratu zen berriro krisia sistematikoa dela.

Bistan denez, kudeaketa ekonomikoaren eredu hegemonikoa Euskal Herrian islatzen da, non neurririk gabeko kontsumismo irrazionalerako sistema bat sendotu baita, beste eskualde batzuetan gertatu den bezala. Bizitzeko modu horrek dituen ondorio sozialez gain, uneko eta etorkizuneko belaunaldiak arriskuan jartzen dituzten atzera pausorik gabeko eraginak izaten ari da inguruan eta lurrean.

Saltoki gune erraldoiak, banaketa-kate handiak eta nazioarteko markak hirien eta herrien erdialdean eta aldirietan ugaritu dira; denbora berean, enpresa txiki tradizionalak eta baserritarrek itxi behar izan dute beraien dendak eta nekazaritza-ustiapenak, hurrenez hurren. Errepideen eta azpiegitura handien (hala nola, AHT) kopuruaren handitzeak eraginak izaten ari da eragina izan du.

Azken hamarkadetan ezarri den kontsumo-kulturak erro heteropatriarkal sendoak ditu ere, estereotipo sexistak erreproduzitu eta emakumeak eskubideen hartzaile gisa ikusezin bihurtzen dituztenak. Kontsumo-eredu horrek lan publiko eta pribatuaren arteko banaketa sexista baieztatzen du.

Bere aldetik, Euskal Herriak ez du saihestu "zaintza-krisia" deritzona, eta zenbakiak argi eta garbi erakusten dute emakumeak direla aisialdirako, ikasterako, atsedean hartzeko eta esku-hartze soziala izateko denbora jardueraren erreproduktiboak betetzeko erabiltzen dutenak, bizitza mantentzeko beharrezkoak diren jarduerak, hain zuzen ere.

Pandemiak eztanda egin ondoren, zahar-egoitzetako langileen lan-segurtasun ezak eta lan-baldintza eskasek, egoiliarren ongizatea eta osasuna bermatzeko ezintasunak, es-



kolen itxierek, bakarrik bizi zirenen egoerak, etab. agerian utzi dute gure zaintza-sistemaren porrota, bai eta Euskal Herriak zaintza-eredu berri bat urgentziaz behar duela ere.

Gauza publikoen garrantziaren eztabaida lehenetsi zen, eta mugimendu sozialen (batzuk sendoagoak -adibidez, mugimendu feminista-, beste batzuk hasi berriagoak -hala nola, pentsiodunena-) presentzia kaleetan mantendu zen. Mugimendu horiek hedadura globala dute, batzuetan aldarrikapenak tokikoak izan arren.

Horrela, Pentsiodunen Mugimendua mugimendu indartsuenetako bat da oraindik, eta une honetan koordinatua da. Mugimendu honek erretiratuei (gizartearen gero eta zati handiago bat direnak) pena merezi duen bizitza bat bizitzeko aukera ematen dieten irabaziak bermatzen dituen pentsio-sistema publiko baten alde egiten du.

Mugimendu feministaren ikusgarritasunak eta indarrak handitzen jarraitu dute azken urteetan, gizartearen mugimenduarekiko aitorten mailarekin batera. Horren barruan dinamismo handia ikus dezakegu, 2019ko azaroko Euskal Herriko Jardunaldi feministek garbi utzi zuten.

Talde eta kolektibo anitzek, zeinen artean desadostasunak baitaude (besteak beste, prostituzioaren edo feminismoaren subjektu politikoaren definizioaren gaitetan), gogor lan egiten dute lotura-zubiak aurkitzeko eta agenda komun bat sortzeko.

Badaude ekiteko eta sakontzeko beste gai batzuk, hala nola: deskolonizazioa eta sexu- eta genero-aniztasuna; dena den, kakoak eta ezberdintasunak jorratzen diren bitartean, Euskal Herriko mugimendu feministak antolakuntzaren eta bidea elkarrekin egitearen alde egiten du oraindik. Hortaz, arrazismoaren aurkako feminismo antikapitalista bat aurrera eramaten duen talde-lanarekiko interesa handiagoa da. Feminismo horrek ez du ulertzen aniztasuna identitate partikularren gehikuntza gisa, ezta zapalkuntza-hierarkia ezartzeko aitzakiatzat hartzen; baizik eta hierarkia sozial horiek emakumeen bizitza-baldintza materialetan eta subjektibotasunean duten eragina ulertu nahi du.

Horrela, feminismoaren eta beste mugimendu sozialen lanaren zati handi batean ikuspegia eta ikuspuntua aldatu egin dira; interseksionalitatearen ikuspuntua ezinbestekoa da, ezkerreko analisi zaharrek oinarri hartzen zuten langile-klasearen homogeneotasuna hautsitako kategoria da eta klasearen, arrazaren eta sexualitate edo identitatearen arteko interseksionalitatea aintzat hartu behar dugu, bai eta aitortu ere baldintza nahiz zapalkuntza-moduetan dauden ezberdintasun kualitatiboak eta kuantitatiboak iparraldeko eta hegoaldeko borroken artean.

Ekoizpen eta kontsumoaren gorpila ia eten zenean, COVIDaren krisiak pertsonak eta sistemak naturan eragiten dituzten kalteak ere agerian utzi zituen. Iritsi garen puntu honetan, sistema horrek arriskuan jartzen ditu gure planetako gizakien bizitzarako baldintzak. Noski, gai horretan herrialde batzuk beste batzuk baino erantzukizun handiagoa dute; Euskal Herriari dagokionez, aztarna ekologikoaren neurtzearen arabera, Lurreko pertsona guztiek euskaldunen kontsumo-maila bera izango balute, 3 planeta beharko genituzke hornitzeko. Horri gehitu behar zaio Euskal Herriko berotegi-efektuko gasen (BEG) *per capita* isurtzeak bikoizten duela munduko isurtzea biztanle bakoitzeko.

Munduko pandemiaren testuinguruak erronka oso larriak dakar berarekin. Beldurrak, isolamenduak, zigor-kontrolak eta interakzio sozial eta politikoaren ahultzeak murgiltzen gaituzten garaian, zigorrek eta obediencia-beharkizunak kritikak egiteko aukerak murriztitzakete eta giza-, ekonomia- eta hezkuntza-eredu hegemonikoarekiko mendekotasun osoa exijitu.

*“Mugimendu feministaren ikusgarritasunak eta indarrak handitzen jarraitu dute azken urteetan, gizartearen mugimenduarekiko aitorten mailarekin batera.”*

Ezbehar eta muturreko murriztapenen testuinguru horretan agerian geratzen dira zer zailtasun daude dinamizatzeko protesta-prozesuak, prozesu internazionalistak, feministak, klasekoak, ekologistak, euskaltzaleak...

## ELKARTASUNA: ALDAKETAREN ALDEKO APUSTUA

Hori guztiaren aurrean eta 34 urteko ibilbidea atzetik izanda, Mugarik Gaben elkartasuna mugitzen gaituen balioa dela diogu oraindik. Mugimendu sozialen eta erakundeen arteko elkartasuna “joan-etorrikoa” da, eta salaketa-agenda nahiz aukera-proposamen komunak sortzea eskatzen du.

Tokiko eta munduko borroken arteko antolakuntza-estrategia berriak behar dira, erantzun globalak emateko aukera ematen dutenak tokiko ikuspuntua galdu gabe.

Zentzu hertsiko elkartasun bat, xede komun bat bilatzean beste pertsona, sektore sozial edo herriekin lotzen gaituzten harremanak aitortzen eta ikusarazten dituen; xede komun hori banakako eta taldeko ongizatea (edo ongi bizitzea) bilatzea eta defendatzea izanda. Hortaz, elkartasun horrek beste pertsonekin betebeharrak komun bat ezartzea dakar berarekin, bai eta pertsona horiekin benetako konpromiso objektibo bat izatea eta beraien idealak atxikitzea, geureak izango balira bezala gure gain hartuko ditugunak.

*“Ekoizpen eta kontsumoaren gurpila ia eten zenean, COVIDaren krisiak pertsonak eta sistemak naturan eragiten dituzten kalteak ere agerian utzi zituen.”*

Arazo globalen erantzunak globalak izan behar dira, eta pandemia mundu mailan ekin beharreko arazo sakonen sintoma bat baino ez da. Ekite horrek egoeraren larritasunaren eta suntsitze-possibilitatearen aurreko hautatze bat dakar ondorioz.

Horrenbestez, erronka nagusia elkartasun indartsu eta global horiek sortzea da, larrialdi egoera baten aurrean agertoki alternatiboetara igarotzeko aukera ematen dutenak eta, halaber, tokiko mailako elkarlanean inplikatzeko ahalbidetuko dutenak. Pentsa dezagun kontsumo-praktiketan, politika komertzialetan edo mugen kudeaketan.

Gainera, burokratizazio-prozesuak kooperazio-elkarteen ekintzen ezaugarri politikoenak eta mobilizatzaileenak galtzea ekarri du berarekin. Beharrezkoa da izaera politikoko praktikak sustatzea, egitura-aldaketak eragingo, biztanleriaren gehiengoaren balio-eskala nahiz praktika

sozialak aldatuko eta ekimen alternatiboak sortuko dituztenak. Ekimen horiek, erresistentzia sustatzeaz aparte, ekitate-, inklusio- eta jasangarritasun-irizpideak eta elkartasun globaleko irizpideak oinarri hartuta sortu nahi dugun etorkizun postkapitalista baterako argibide gertagarriak eskainiko dituzte.

Beraz, kontua da elkarlan bat sustatzea, zeinak planetaren edozein lekuan bizitza, bizi guztiak, lehenetsi eta babestuko baitituen kapitalaren metatzearen eta gizartearen suntsipenera halabeharrez gidatzen gaituen garapen sozioekonomikoaren aurrean. Horregatik da hain garrantzitsua elkarlanak orokorrean, eta, bereziki, elkarlanean lan egiten duten erakunde sozialek, ikuspuntu feministak eta ekologistak gehi ditzaten beraien identitateara, antolaketa-modura eta garatzen dituzten ekimenetara. Elkarlanak, agindu etiko eta politikoa denaren aldetik eta tokiko eta munduko alderdi bikoitzetik, feminismoa eta ekologia elkarlanaren eta horren erakundearen agendaren erdian egon daitezela exijitzen du.

Gizarte jasangarri, bidezko eta zuzenak sortu ahal izateko, errotik ezberdina den beste eredu batera igaro behar dugu, bizitzaren eta planetaren zaintza erdian jartzen duen eredu batera, alegia. Ulertzen dugu ez dagoela kolektibo edo mugimendu bat ere unean aurre egin behar diogun konplexutasunari emaitza emateko gai dena, edo aldaketa sozialak bakarka eragin ditzakeena. Gure aburuz, sareak sortzea, elkarlana eta diskurtsoen, borroken eta mugimenduen antolakuntza ezinbestekoak dira eraldatze sozialarekin elkarrekin aurrera egiteko.

Mugimendu zabalak lortzeko, subjektu sozial zabal eta anitz baten identitatea antolatu behar da. Erresistentziarako eta alternatibak sortzeko antolakuntza soziala burutzeko, beharrezkoa da konplexutasun-itsaso hori antolakuntza-modu ezberdinen bidez nabigatzea.

Hori guztia, bizitza duin bat izateko beharrak bermatuta izango ditugun beste bizitza-eredu bat sortzeko, ondasunak eta zaintza-lana bananduaz eta baliabideak eskasak direla ohartuaz, horiek modu arduratsuan erabilia.



# 2 ZERREGINA

MUGARIK GABE Garapenerako Lankidetzarako Gobernu Kanpoko Erakunde bat da. Bere EGINKIZUNA **justizia soziala** lortzea da, **bizitzaren jasangarritasunaren ikuspuntu feminista** batetik banakako eskubide eta eskubide kolektiboak errespetatu eta betetzearen bidez. Pertsona eta herri ekomendekoak eta elkarren mendekoak gara, hortaz, **tokiko eta munduko ikusmolde** batetik, eraldatze sozial, politiko, ekonomiko eta kultural bat bilatzen dugu, hurrengoak landuta:

- **Eraldaketa Sozialerako hezkuntza:** sustatzen eta bermatzen ditugu tokiko eta munduko ikuspuntua du-

ten eragin sozial eta politikoko sareko prozesuak, indarrean dauden ereduak (hala nola: eredu kapitalista, heteropatriarkala eta etnozentrikoa) bizitza eta pertsona nahiz herri guztien aniztasunerako errespetua erdian jartzen dituzten eredu bihurtzen saiatzen direnak.

- **Nazioarteko elkarlana:** mugimendu sozialekin, emakumeen erakundeekin eta Latinoamerikako erakunde indigenekin elkarlanean aritzen gara, haien eskubiak eta berariazko garapen-ereduak defendatzeko borroka-prozesuak lagunduz.

*“MUGARIK GABE Garapenerako Lankidetzarako Gobernu Kanpoko Erakunde bat da. Bere EGINKIZUNA justizia soziala lortzea da, bizitzaren jasangarritasunaren ikuspuntu feminista batetik banakako eskubide eta eskubide kolektiboak errespetatu eta betetzearen bidez.”*

# 3

# IKUSPEGIA

6 urtetan, aurrera eramango dugu jarraian azaltzen den erakundea sortzeko proiektua::

- **Eskubide kolektiboen eta naturaren eskubideak defendatzen lagunduko duen erakundea**, multinazionalak eta estatuak horiek urratzean **salaketak** eginda, horiek defendatzeagatik kriminalizatuta pertsonak lagunduta, eta eragin politikorako eta sozialerako gaitasuna indartuta. **Bizitza-eredu jasangarriak** (hala nola: Herri Indigenen ongi bizitzeko eta autodeterminaziorako eskubidea) bultzatuko ditugu eta eredu politiko eta ekonomiko alternatiboak (justizia soziala dutenak eta jasangarriak eta bidezkoak direnak) sustatuko, parte hartuta hala Latinoamerikan, nola hemen horiek sustatzen dituzten sare anitzetan.
- **Emakumeen eskubideen defentsarekin lagunduko duen** erakundea bat. Hori lortzeko, eskubideen urratzea **salatuko** eta justizia exijituko eta aktiboki sustatuko du, bereziki parte hartuta sexu- eta ugalketa-**eskubideen** nahiz indarkeriarik gabeko bizitza bat izateko eskubidearen betetzean. Gainera, autonomia ideologikoa, segurtasun pertsonala, sareko lana eta eskubide horien defendatzaileen laguntza integral eta

feminista indartuko ditu. Antolakuntza-**eredu alternatibo feministak** sortzen lagunduko dugu, bai hemengo nola Latinoamerikako mugimendu feministarekin eta emakumeen mugimenduekin antolatzen jarraituko dugu, zaintza sustatuko dugu erakundeetan eta aurrera eramango ditugu indarkeria sexisten aurreko memoria- eta konpontze-prozesuen sorkuntza.

Hori guztia **elkarlan deszentralizatuaren** eta sinesten dugun **elkartasun-eredu eraldatzailearen** balioaren defentsaren esparruan.

Hori guztia lortzeko, erabaki-hartzea hobetzeko eta zaintzaren demokratizazio-ereduari ekiteko aukera emango digun **antolakuntza-eraldaketa feministaren** prozesua sendotuko dugu. Gainera, gure **egitura eta barneko funtzionamendua** berrituko eta **ekologia-kontzientzia eta jasangarritasun ekologiko** handiagoak irmotuko ditugu. Gu **prestatzeko** eta erakundearen barneko nahiz kanpoko **komunikazioa** hobetzeko beharrezkoak diren baliabideak jarriko ditugu ere. Halaber, **aurrekontuaren kontrola eta kudeaketa ekonomikoa** hobetzeko eta **autonomia nahiz finantza-aniztasun handiago bat** lortzeko mekanismo berriak martxan jarriko ditugu.



# 4 BALIOAK

Antolaketa-balioek Mugarik Gabeko lana eta kolektiboekin nahiz erakunde aliatu eta kideekin ditugun harremanak bermatzen dituzte. Gure aburuz, balioak dira pertsona eta kolektiboak bere eta besteen duintasunean sinestera, haztera eta duintasuna defendatzera eramaten dituztenak.

Uste dugu pertsona oro baliotsua dela era berean, bere jatorria, kultura, sexua, generoa, erlijioa eta ezagutza gorabehera. Gure ustez, bere buruarekin, besteekin eta inguruarekin harremana duten balio batzuk daude. Hortik abiatuta, Mugarik Gaben geureak egiten ditugu hurrengo balioak:

- **Tokiko eta munduko elkartasuna**, pertsona, kolektibo eta herrien artean.
- **Koherentzia**, etengabe berrikusita gure barneko praktikak, salatzen dugunarekin eta gizarteari nahiz erakundeetara exijitzen diegunarekin koherenteak izateko.
- **Ondasun Komunen Defentsa**, pertsonak bidezko moduan horietara sarrera izateko eskubidea, betiere planetaren muga ekologikoen barruan.
- **Aniztasuna**, identitate ezberdinen errespetua, ezagutza eta defentsa sustatuta.
- **Zuzentasuna**, kontuan izanda pertsona bakoitzak bere testuinguruaren eta egoeraren arabera dituen beharrrak.
- **Justizia soziala**, aberastasunaren birbanaketan eta pertsona guztien eskubide ororen bermean oinarrituta.
- **Banakako eta taldeko erantzukizuna**, kontzientzia hartuaz pertsona guztiok dugula munduan gertatzen denaren ardura eta ezin dugula erantzukizun sozial hura saihestu.
- **Horizontaltasuna eta biltzar-bidezotasuna**, non pertsona guztiok esku hartzeko eta erabakiak hartzeko botere berdina baitugu erakundearen barruan.
- **Elkarren mendekotasuna eta sareko lana** indibidualismoaren aurrean. Taldean lan egitearen eta besteekin batasunak egitearen garrantzia aitortzen eta balioesten dugu.
- **Feminismoa**, eraldatze soziala lortzeko ikuspuntu hartuta.
- **Jasangarritasun ekologikoa**. Larrialdiko aldarrikapen globaltzat hartuta, gure apustu estrategikoetan eta eguneroko jarduteetan islatu nahi duguna.
- **Gardentasuna gizartearekiko eta erakundearen barnerako**, erakusteko zer egiten dugun eta nola, erantzukizunetik eta koherentziatik abiatuta.
- **Konfiantza**, bai gure erakunde aliatu eta kideekiko, nola Mugarik Gabe osatzen dugun pertsonen artean.



# 5

## ILDO

# ESTRATEGIKOAK

### 1. ILDOA: ESKUBIDE KOLEKTIBOAK ETA BIZITZA JASANGARRIAK

Gure plan estrategikoaren lehen ildoak eskubide kolektiboen eta naturaren eskubideen defentsa sustatzen du multinazionalak eta estatuek burutzen dituzten urratzeen aurrean. Naturaren Eskubideak barne hartu ditugu gure kideek Latinoamerikan egin duten lanaren eta kide horien ikuspuntuaren ondorioz. Ikuspuntu horrek espezie bizi guztien eskubideak aitortzen ditu eta dagokigun lekuan jartzen gaitu, arriskuan dagoen eta defendatu behar den ekosistemaren parte den espezie bizi bat gehiago garela aitortuaz.

Ulertzen dugu Natura eskubide-subjektutzat hartzea ikuspegi berria dela mendebaldeko kulturarentzat. Hala ere, gure ustez, berez oso androzentrikoa den mendebaldeko mundu-ikuskerak elikatzeko interesgarria liteke beste mundu-ikuskeretatik eratorritako gogoetak eta ekarpenak ekartzea. Gizakia apaltzeko modua ere izan daiteke, horrela aitortzen delako naturaren zati osagarria garela, izaki ekomendeko eta elkarren mendeko garela, eta ez naturaren jabe.

Agerian utzi nahi dugu sistemak kapitala eta metatzea bizitzaren gainetik jartzen dituela, bai ekosistemen bizitza,

nola horietan bizitzen garen pertsonen bizitza, eta badaudela egunero beraien eta planetaren bizitza defendatzen duten kolektiboak, hala nola, herri indigenak. Mugarik Gabeko eginkizuna borroka horiekin laguntzea liteke, horiek ezagutzera eman eta mendebaldearekin lotzea.

Gure aburuz, suntsipenaren aurrean gaude. Ingurumena andeatzen ari da, ekosistema hondatzen, biodibertsitatearen galera bizkortzen, etab., eta eskubideen urratze bikoitz hori islatzeaz aparte, giza eskubideak klima-krisiarekin lotu nahi ditugu.

*“Ingurumena andeatzen ari da, ekosistema hondatzen, biodibertsitatearen galera bizkortzen, etab.”*

Mugarik Gabeko lan historikoarekiko ildo kontinuistago batean, plan estrategiko honetan hurrengoan alde egiten dugu: Latinoamerikako erakundeak eta eskubideen defendatzaileen gaitasun teknikoak eta politikoak indartzen laguntzen jarraitzea, eta, aldi berean, azpimarratze politiko eta sozialak egitea eskubide kolektiboak eta naturaren eskubideak progresiboki berma eta bete daitezten.



### 1. helburu estrategikoa: Eskubide kolektiboak defendatzea multinazionalen eta estatuen urratzearen aurrean

#### 1.1. Natura eta lurraldea defendatzeko eskubideen urratzeak salatzea

- Latinoamerikan eta Euskal Herrian, multinazionalen eta estatuen aldetik eman diren eskubide-urratzeak salatu dira, bai eta errespetua, justizia eta lehengoratzea exijitu ere.
- Eskubide kolektiboen eta naturaren eskubideen defendatzaileak babestu eta modu integralean lagundu dira Latinoamerikako protesta sozialen kriminalizazio-politiken aurrean.

#### 1.2. Eragin politiko eta sozialerako gaitasunak indartzea eskubide kolektiboak eta naturaren eskubideak defendatzeko

- Latinoamerikako erakundeen eta eskubideen defendatzaileen gaitasun teknikoak eta politikoak indartu dira.
- Politikoki eta sozialki eragin da eskubideak progresiboki bermatzeko eta betetzeko.

### 2. Bizitza Jasangarrirako ereduak sortzea zibilizazioaren krisiaren testuinguruan

#### 2.1. Herri Indigenen ondo bizitzeko eta eredu propioak sortzeko autodeterminaziorako eskubidea sustatzea.

- Nazio anitzeko estatuak sortzearen alde egin da, eta autonomia indigenak eta Latinoamerikako bizitza modu propioak sustatu dira.
- Komunitatearen ekonomia eta herri indigenen elikadura-subiranotasuna indartu dira Bolivian, Guatemalan eta Kolonbian.
- Komunikazio propioa eskubideak defendatzeko eta betetzeko tresna estrategiko gisa erabiltzearen alde egin da.

#### 2.2. Justizia soziala duten eta jasangarriak eta bidezkoak diren eredu politiko eta ekonomiko alternatiboak sustatzea

- Politikoki eta sozialki eragin da eskubideen berme eta betetze progresiboa lortzeko.
- Bizitza jasangarriak izatera zuzendutako aldarrikapenak eta alternatibak sozializatu dira Euskal Herrian.
- Ekonomia-, ekoizpen- eta kontsumo-ekimen eta eredu bidezkoak eta jasangarriak sustatzeko xedea duten sareetan parte hartu da.

- Gure kideak lagundu ditugu ekonomia feminista, autonomo eta jasangarriko ereduak aurrera eramateko.

## 2. ILDOA: EMAKUMEEN\* ESKUBIDEAK ETA ERALDATZE FEMINISTA

Gure plan estrategikoaren bigarren ildoak emakumeen\* eskubideen defentsaren eta eraldatze feministaren alde egiten du.

Horretarako, emakumeen eskubideen urratzeak salatu nahi ditugu, justizia eta eskubide horiek betetzeko eskubidearen sustapena exijituaz. Eragiteko gaitasuna hobetzeko, mugimendu feministarekin eta emakumeekin batera antolatzea sustatuko dugu, eta memoria- eta konpontze-prozesuak sortuko ditugu indarkeria sexisten aurrean.

*"...emakumeen eskubideen urratzeak salatu nahi ditugu, justizia eta eskubide horiek betetzeko eskubidearen sustapena exijituaz."*

Hezkuntza-prozesuen bidez eta tokiko kideak lagunduta, indarkeria sexistarik gabeko bizitza bat izateko Eskubidea exijituko dugu. El Salvadorren, Nikaraguan eta Kolonbian Sexu- eta Ugalketa-eskubideen defentsan lan egingo da, eta autonomia ideologikoa eta segurtasun pertsonala indartuko dira. Gainera, emakumeen defendatzaileak modu integral eta feministan lagunduko ditugu, horien kriminalizazioa salatuta eta aldi berean beste erakundeekin sarean lan egitea indartuta. Azkenik, Kolonbiako emakumezko indigenen erakundeen sexu- eta genero-aniztasunaren inguruko lanarekin lagunduko dugu.

Mugimendu feministarekin eta emakumeekin egingo den antolakuntza Latinoamerikan ditugun kideen gaitasun tekniko eta politikoak indartuta landuko da; Giza Eskubideen erakundeek eta defendatzaileek burutzen dituzten praktika osasuntsu eta zainduen zaintzarekin lagunduta; eta sareko lana burututa Euskal Herriko mugimendu feministarekin batera eragin soziopolitikorako.



Indarkeria sexista anitzen biktimak diren emakumeen Egiarako, Justiziarako eta Konpontzerako Eskubidearen exijentziarekin aurrera egingo dugu, bai Euskal Herrian, bai Latinoamerikan, aldarrikatuta zer nolako garrantzia duen memoria kolektibo bat sortzea, sinesgarritasuna eta eraldatze soziala lortzeko asmoarekin emakume horien ahotsak jasoko dituen. Era berean, Konpontzearen betetzea exijitu, Estatuak gutxien garatutako alderdi bat baita, non Estatuak erantzukizun argia baitute indarkeria horiek erazteko eta osagarri oso garrantzitsua dena indarkeria horiei aurrea hartzeko.

\*Emakumeei buruz hitz egiten dugunean, emakumea izatearekin bat egiten duten pertsona oroz ari gara, cis edo trans diren kontuan hartu gabe.

### 3. HE EMAKUMEEN\* ESKUBIDEEN DEFENTSA

#### 3.1 Emakumeen\* eskubideen urratzea salatzea, justizia exijitzea eta eskubide horiek betetzeko eskubide aktiboa sustatzea.

- Sexu- eta ugalketa-eskubideen betetzearekin lagundu da El Salvadorren eta Kolonbian
- Indarkeria sexistarik gabeko bizitza bat izateko eskubidearen betetzea aurrera eramane da, Hezkuntza-prozesuak eta eragin politikoko nahiz sozialeko prozesuak lagunduaz eta garatuaz
- Indarkeria sexistarik gabeko bizitza bat izateko, autonomia ideologikoa eta segurtasun pertsonala indartu dira Kolonbian, Guatemalan eta Nikaraguan
- Emakumeen eskubideen defendatzaileei modu integral eta feministan lagundu zaie, eta horien kriminalizazioa salatu da
- Emakumeen\* eskubideak defendatzen dituzten erakundeekin egindako sareko lana indartu da
- Sexu- eta genero-aniztasunari dagokionez, Kolonbiako emakume indigenen lana indartu da

### 4. HE ANTOLAKUNTZA POLITIKO ETA SOZIALEKO EREDU ALTERNATIBOAK SORTZEA

#### 4.1. Eragin-gaitasuna hobetzeko asmoarekin, mugimendu feministarekin eta emakumeekin antolatzea

- Latinoamerikako erakunde kide feministen eta emakumeen gaitasun teknikoak eta politikoak indartu dira
- Euskadiko mugimendu feministarekin batera egin da sareko lana eragin soziopolitikorako

- Giza eskubideen erakundeek eta defendatzaileek burutzen dituzten praktika osasuntsu eta zainduen (lantaldeko egitura ez patriarkalak) zaintza-aren indartzearekin lagundu da

#### 4.2. Memoria- eta konpontze-prozesuak sortzea indarkeria sexisten aurrean

- Indarkeria sexisten biktimen eta horietatik bizirik atera direnen memoriaren berreskuratzearekin eta hedatzearekin aurrera egin da
- Indarkeria sexisten biktimen eta horietatik bizirik atera direnen Konpontzerako Eskubidearen betetzea aurrera eramateko ekimenak garatu dira

## 3. ILDOA: BARNE-KOHERENTZIA ETA JASANGARRITASUN EKONOMIKOA

Gure Plan estrategikoaren hirugarren ildoak erakundeak aurreko bi ildoetan deskribatutako lanarekin **barne-koherentzia** mantentzearen alde egiten du.

Alde batetik, duela hainbat urte hasi genuen **antolakuntza-aldaketa feministaren** prozesua sakontzen jarraituko dugu, gure biltzarreko erabaki-hartzean, kudeaketa emozionalean, prozesu nahiz pertsonen zaintzan, etab.-etan egin beharreko hobekuntzak aurrera eramanda. "Zaintzen demokratizazioa" ekin beharreko erronka berri bat izango da, dagoeneko hartu ditugun neurriak berrikusita eta neurri berriak hartuta.

*"...uneko krisi klimatikoko eta ingurumenaren andeatzearen testuinguruan, beharrezkotzat jotzen dugu gure politika ekologikoa berrikustea, eguneratzea eta neurri berriak hartzea."*

Bestalde, uneko krisi klimatikoko eta ingurumenaren andeatzearen testuinguruan, beharrezkotzat jotzen dugu gure **politika ekologikoa** berrikustea, eguneratzea eta neurri berriak hartzea. Neurri berri horien bidez gure barne antolakuntza koherenteagoa izango da etorkizuneko belaunaldiak utzi eta zaindu nahi dugun munduarekin.



**Kooperazio deszentralizatuaren balioan** eta **elkartasunezko eredu eraldatzailean** sinesten dugu, nahiz eta hainbat instantzia instituzional, presio-talde eta gaian aditu direla dioten pertsona gero eta zalantza nabarmenagoak izan elkartasun-eredu horretan, eta, ondorioz, GGKEen lanaren izen ona galduta. Hala eta guztiz ere, eredu hori defendatzen jarraituko dugu prestakuntzen eta sareko lanen bidez, komunikabideetan eraginda, etab.

*“Berrikusketa jarrai baten alde egiten dugu, gure erakundea eta bere funtzionamendua aztertuko dituen, non kolektibokoa eta banakakoa garrantzitsutzat jotzen baitira”*

Uneko testuinguruari erantzuna emateko eta herriko mugimenduekin aliatutako eraldatzea bilatzen duen erakunde bat izaten jarraitzeko, hori egiteko aukera emango digun **prestakuntza jarraiaren** alde egiten jarraituko dugu. Garai horretarako hainbat gai definitu ditugu, besteak beste: krisi klimatikoa, deskolonizazioa, sexu- eta genero-aniztasuna, intersekzionalitatea, eta, jakina, Latinoamerikako herrialde ezberdinen testuinguru berrien eguneratze jarraia.

Beti bezala, egingo dugun modua garrantzitsua da. **Berrikusketa jarrai** baten alde egiten dugu, gure erakundea eta bere **funtzionamendua** aztertuko dituen, non kolektibokoa eta banakakoa garrantzitsutzat jotzen baitira, adibidez, hurrengo alderdiak: biltzar-bidezkotasuna eta antolakuntza eredu horizontalak, praktikak burutzen dituztenekin dagoen harremana, boluntariotza, lan egiteko modu berriak (hala nola, telelana) etab.

Amaitzeko, hona hemen oraindik aurrera eraman behar ditugun bi alderdi. Lehena **komunikazioa** da, bai barneko mailan, bai kanpoko mailan. Komunikazio modu berrietara eta teknologia berrietara ere egokitu behar gara, gure jarrerak iritzi publikoari nola aurkezten diogun moduari buruzko gogoeta jarraitua eginda. Eta azkenik, baina ez horregatik garrantzia txikiagokoa, **jasangarritasun ekonomikor**a iristeko beharra, finantzaketa publikoaren murrizketa orokorraren aurrean kostuak murrizteko eta iturriak nahiz sarrerak dibertsifikatzeko neurriak ezarriaz.

## 5. MG-ko barne-koherentzia indartzea

### 5.1. MG-ko antolakuntza-aldaketa feminista abian jarztearekin aurrera egitea

- Mugarik Gabeko genero-estrategia berria sortu da
- Erakundearen erabaki hartzearen prozesuak hobetu dira
- “Zaintzen demokratizazioaren” ereduari ekin zaio erakundearen
- Lan-baldintzak eta pertsonak ebaluatzeko eredu berritzen eta eguneratzen dira
- Jazarpenaren aurkako protokoloa ezarri da

### 5.2. Ekologia-kontzientzia eta jasangarritasun ekologiko handiagoak sendotzea erakundearen

- MG-ko politika ekologiko berria berri, eguneratu eta abiarazi da

### 5.3. Elkartasuneko lankidetzaren eraldatzailearen eredu defendatzea

- Gizartearen eta erakunde publikoen aurrean lankidetzaren deszentralizatuaren, eta, bereziki, sinisten dugun elkartasun-eredu eraldatzailearen balioa defendatu da.

## 6. Barneko indartzea (gaitasunak eta tresnak)

### 6.1. Gai estrategikoei dagokionez, gure erakundearen jarrerak prestatzea eta kolektiboki sortzea

- Gai estrategikoei dagokionez, gure ezagutzak hobetu ditugu eta antolakuntza-jarrerak erabaki dira

### 6.2. Barneko eta kanpoko komunikazioa hobetzea MG-n

- Gure kanpoko eta barneko komunikazio-eredua zehaztu da

## 7. Erakundearen jasangarritasun ekonomikoarekin aurrera egitea

### 7.1. Aurrekontuaren kontrola eta kudeaketa ekonomikoa hobetzea

- Erakundearen kostuak murriztu dira
- Aurreikuspen eta kudeaketa ekonomikoa hobetu dira

### 7.2. Iturriak eta sarrera motak dibertsifikatzea

- Baliabide propioak areagotu dira, eta finantzaketa publikorako mendekotasuna murriztu proiektuekin lotura ez duten sarrerak sortuz
- Sarrera iturriak erakunde publikoetan dibertsifikatu dira (proiektuen edo zerbitzu-lizitazioen bidez)

# 6

# JARRAIPEN- ETA EBALUAZIO- SISTEMA

## SARRERA

Behin PE-ren ildoak definitu eta gero, MG-k kolektiboki lan egin du erakundearen behar eta interesetara egokituko den jarraipen- eta ebaluazio-sistema bat sortzeko.

## ADIERAZLEEN SISTEMA

Ebaluatu beharreko alderdien lehenestea burutzeko, lehenik ebaluazio-ahaleginen “**zertarako**” nagusiak definitu dira, hiru nabarmenduta:

- MG-k abian jartzen dituen esku hartzeen bidez eragindako eraldatze sozialaren maila neurtzea;
- antolakuntza-koherentzia neurtzea; eta
- lan-prozesuetatik ikasteak ateratzea.

“Zertarako” globalago horiek definitu eta gero, bigarren urratsa Plan Estrategikoak kontuan hartzen dituen hiru ildoetako bakoitza zehazki begiratzea izan zen, hautatzeko **zer elementu** ebaluatu behar ziren lehentasunez eta ulertuta PE-ren eduki guztiak hartzen saiatzeak erakunderako garrantzitsuegia den baliabide kopuru bat erabiliko zuela.

Puntu horretan, Biltzarrak ildo bakoitzeko bi xede eragile lehenestea erabaki zuen.

Bukatzeko, ebaluazio-taula batzuk egin ziren ildo bakoitzeko, hiru ebaluazio-esparru ezberdin baina osagarrietan funtsatutako irizpideetan oinarrituta:

- **Ebaluazio feminista**, besteak beste, hurrengo irizpideak ikusten dituenak: emakumeen parte hartzea, ahalduntzea eta interseksionalitatea.
- **Giza Eskubideen ikuspuntuan** oinarritutako ebaluazioa, irizpide bereizi batzuetan funtsatutako kontuak neurtu nahi dituenak (adibidez, GGEEen dimentsio kolektiboa edo horien galdagarritasuna).
- **Garapenerako Lankidetzaren** irizpide “klasikoetan” (hala nola: eraginkortasuna, eragina, koherentzia edo jasangarritasuna) oinarritutako ebaluazioa.

Momentu orotan, jarraipen- eta ebaluazio-prozesua ikaste berriak sortzeko xedearekin metodologia ezberdinak nahasteko aukera ematen duen ariketa sortzailatzat hartu da, eta ez prozesu dogmatiko eta estatikotzat. Hurrengo sistema ezartzea bilatu da:

- **Ardazturiko sistema:** Kontuan hartu da hobe zela elementu batzuk hautatzea horietan arreta gehiago jar-



tzeko, azalekoagoa izango litzatekeen ahalegin global bat egitea baino.

- **Konkretutasun maila ertainekoa**, xede eragilean mailara zuzenduta.
- Informazio-bilketaren **teknika kualitatibo eta parte-hartzaileak lehenesten dituen** (esanguratsua zenean adierazle kuantitatiboak ezartzeko beldurrik izan gabe).
- Ebaluazio-galderen eta egiaztatze-iturrien **oinarrizko lehen esparru bat ezartzen duena** eta hasierako "oinarrizko ildo" bat sortzeko beharra azpimarratzen duena, denboran zehar elementu batzuk izan duten garapena balioetsi nahi denean.

Esparru hori abiapuntutzat hartzen da gehiago, itxitako dokumentutzat baino. PE indarrean dagoen 6 urteetan zehar, aurreikusten diren jarduerak eta programak garatzen diren heinean sortzen diren ebaluazio-galdera esanguratsuek elikatuko dute. Ibilbide-orri hori **lineako ebaluazio-taula** batean jaso da, eta eranskinean jaso da.

#### Jarraipen- eta ebaluazio-egiturak

Behin Plan Estrategikoaren eduki nagusiak formulatuta, Mugarik Gabeko asanbladak barneko lan-egiturak berri-kusteko une egokia dela adostu du. Helburua, aurreko Plana ezartzean identifikatutako zailtasunak konpontzea eta antolakuntza-testuinguruaren bilakaerara egokitzea izan da.

Hausnarketaren emaitzak kontuan hartuta, Plan Estrategiko berriari jarraipena egiteko sistema bat proposatu dugu, hurrengo elementuetan oinarrituta:

- 2021-2026 PEk **koadro operatibo xehatu bat** du. Horri esker, kronograma bat zehaztu daiteke eta helburu operatibo bakoitzaren barruan **aurreikusitako ekintzen exekuzio zehatzak** pertsoneri edo lantaldeei esleitu ahalko zaizkie. Ildo honetan, dokumentuak argi eta garbi jasotzen ditu MGko langile liberatuen arteko erantzukizunen banaketak.
- **PEren aurrerapenen jarraipen orokorrari** dagokionez, **bi batzorde espezifiko** eratu dira, Planaren **1. lerroaren (Eskubide Kolektiboak eta Bizitza Jasangarriak)** eta **2. lerroaren (Emakumeen Eskubideak eta Eraldaketa Feminista)** jarraipena egiteko.

Batzorde bakoitzak **eginkizun hauek** ditu:

- 2021-2026 Plan Estrategikoaren jarraipena egitea eta ebaluazioan laguntzea.
- 2021-2026 Plan Estrategikoaren gauzatzea bermatzea.
- Lerro bakoitzeko puntu estrategikoak planifikatzea Asanbladara eramateko.
- Lankidetzako eta hezkuntzako lan-eremuen arteko artikulazioa indartzea ildo bakoitzean.
- **3. lerroaren jarraipena (Barne Koherentzia eta Jasangarritasun Ekonomikoa)** MGren koordinazio orokorreko organoari esleitu zaio, **Elkarguneri**. Honek batzorde espezifikoaren antzeko eginkizunak ditu, baina administrazio-lanez arduratzen den taldearekin artikulazioa indartzeko beharrari ere erantzuten dio:
  - 2021-2026 Plan Estrategikoaren jarraipena egitea eta ebaluazioan laguntzea.
  - 2021-2026 Plan Estrategikoaren gauzatzea bermatzea.
  - 3. lerroko puntu estrategikoak planifikatzea Asanbladara eramateko.
  - Lankidetzaren, administrazioaren eta hezkuntzaren arteko artikulazioa indartzea 3. lerroko gaietan.
- **MGren Asanblada** pertsona liberatu guztiek, bazkideek, boluntarioek eta praktiketan daudenek osatzen dute. Asanblada hileroko biltzen da eta 2021-2025 PEren jarraipenean eta ebaluazioan eginkizun garrantzitsua izaten jarraituko du, bi batzorde espezifikoekin eta Elkargunerekin koordinatuta:
  - Gune horretan, **antolakunde osoari azaldu ahaliko zaizkio zeintzuk diren PEren garapenerako funtsezko uneak**, eta hau behar bezala garatzeko beharrezkoak diren **erabaki estrategikoak hartu** ahal izango dira.
  - **Lerro bakoitzaren urteko berrikuspenak ere partekatu ahal izango dira**, baita **PEren azken ebaluazio orokorrari** ekarpenak egin ere, 2026tik aurrera hurrengo PEren sortze-prozesuari lotuta egongo direnak.



mugarik  
gabe